



IBILGAILU ARINETAKO BIDAIARIEN HIRI BARNEKO ETA HIRI AR- TEKO ZERBITZUEN UDAL ARAUDIA.

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 1988/12/22an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1989/04/21ean

Aldaketak:

1. aldaketa:

27. artikulua

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2003/08/26an

AURKIBIDEA:

I. KAPITULUA.....	2
ARAUDI HONEN XEDEA	2
II. KAPITULUA.....	2
IBILGAILUAK, HORIEN JABETZA ETA ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALDINTZAK	2
1. SEZIOA.— Arau Orokorrak.....	2
2. SEKZIOA.- Lizentziak	5
3. SEKZIOA.- Zerbitzuaren Antolaketa.	7
4. SEKZIOA.— Tarifak.....	8
III. KAPITULUA.....	9
ZERBITZUARI ATXIKIRIKO PERTSONALA.....	9
1. SEKZIOA.- Baldintza orokorrak	9
2. SEKZIOA.— Zerbitzua eskaintzeko modua.....	10
3. SEKZIOA.— Diziplina Errejimena.....	12
ORDEZKO XEDAPENA	13
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	13

IBILGAILU ARINETAKO BIDAIARIEN HIRI BARNEKO ETA HIRI AR-TEKO ZERBITZUEN UDAL ARAUDIA.

I. KAPITULUA

ARAUDI HONEN XEDEA

1. Artikulua.

Errejimen Lokaleko Oinarrietako Legearen 84. artikuluan, Korporazio Lokalen Zerbitzuetako Araudiaren 5. eta 7. artikuluetan eta Ibilgailu Arinetako Hiri barneko eta hiriarteko Garraio Zerbitzuetako Araudi Nazionalaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera Araudi hau ematen da argitara gidaridun alogereko ibilgailu arinetako bidaiarien hiri barneko eta hiriarteko garraio zerbitzua arautzeko.

2. Artikulua.

Araudi hau dagokien zerbitzuak Auto-taxi modalitatearen barnean ezartzen dira. Auto-taxi zerbitzua kontagailu-taximetroaren bitartez neurtzen den zerbitzua da eta normalean hiri lurzoru urbanizagarrian eskeintzen dena edo, kasua denean, zerbitzuko area bateratuan, aipatu lurzorua baino zabalagoa balitz, lurretatiko garraioen ordenamendurako legeriak xedaturikoa beteaz.

II. KAPITULUA

IBILGAILUAK, HORIEN JABETZA ETA ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALDINTZAK

1. SEZIOA.— Arau Orokorrak

3. Artikulua.

Arautzen diren zerbitzu publikoak emateko ahalmena ematen duen udal lizentziak, Trafikoko Nagusigo Probintzialaren Erregistroan ibilgailuaren jabe gisa agertzen den pertsona beraren izenean egina izan beharko du.

Ibilgailuetako jabeek, horiek zerbitzuan jarri aurretik, indarrean dauden xedapenek galdatzen dituzten aseguroak izan beharko dituzte eta baldintza hori gabe ez da horrelako lizentziarik emango.

4. Artikulua.

Arautzen den ihardueran aritzeko udal lizentzietako tituludunek, lizentzia horri atxikiriko ibilgailua ordezkatu ahal izango dute modernoagoa edo baldintza hobetoagoa duna beste batekin, beti ere Araudi honetako baldintzak betetzen baditu eta aldeztu - aurretik Udalaren baimena lorturik.

5. Artikulua.-

Zerbitzura atxikirik dauden ibilgailu guztiak hurrengo ikurrak eramango dituzte kanpoaldean: ibilgailuaren aurrealde eta atzekaldean S.P. inzialak daramatzaten bi plaka, 150 x 75 milimetrotakoak (hizkien zabalera eta altuera 45 x 75 mm.takoa izango dira).

BERGARAKO UDALA

Ibilgailu arinetako bidaiarien hiri barneko eta hiri arteko zerbitzuen udal Araudia

Ibilgailuko sabaiaren aurrekaldeko kanpoaldeko erdian «Taxi» hitza duen modulua eramango dute eta gauez argiturik egongo da. Modulo horrek «taxi» hitzaz gain herriko izena, euskaraz, eta lizentzia zenbakia eramango ditu eta tarifa desberdinak adierazten dituzten lau argiak.

3. Aurrekaldeko ateetan lizentzia zenbakia eramango du urdinez pintaturik, altuera 7 zentimetrotakoa izanik eta zabalera proportzionala.

6. Artikulua.

Zerbitzu publikora destinatutako ibilgailu orok gutxienez 9 HP fiskaleko potentzia izan beharko dute eta bost bidaiarientzako edukiera, gidaria barne.

7. Artikulua.

Lehen aldiz zerbitzu publikora atxikiriko ibilgailuek ezingo dute hori baino une gehiagoko aintzinasuna izan, lehen matrikulazio datatik kontaturik.

8. Artikulua.

Une oro ibilgailuan segurtasun eta funtzionamendu egoera onetan egongo dira eta arretaz zainduko da azalpena, behar bezala ez daudenak zirkulaziotik baztertu ahal izango direlarik.

9. Artikulua.

Ibilgailuen tapizatua behar bezala egongo da, garbitasun gutxiko itxura ernaten duen adabaki edo kalterik gabe, tapizatu osoa kolore berekoa izan dadin saiatuz. Kalitatea, itxura, dibujoa, etab. dela eta ibilgailuentzako egoki ez diren fundak erabiltzea debekaturik egongo da. Zoruko alfonbrak ahal dela gomazkoak izango dira eta garbi egon beharko dute.

Ibilgailu guztiek lau ate izango dituzte eta, bai ate bai leihoetako lotuneetatik ez da inolaz ere haizea nahiz euria sartuko. Ixte-gailuak eta igogailuak errez funtzionatuko dote eta esfortzurik gabe erabiliko dira.

Leiho guztietako kristalak segurtasunezkoak deitzen diren horietakoak izango dira, tenplean eginak; fabrikazio berezitasunengatik gardentasuna galtzen doten eta ikusmena zailtzen duten segurtasunezko ezpalduezinak deitutakoak aldatu egin, beharko dira Agintariek eskatzen dutenean. Ibilgailuek aurreko kristala garbitzeko sistema eta funtzionamendu egoera onean dagoen ispilua izango dute. Argiteria ekipoa, bai barrukaldekoa bai kanpoaldekoa, funtzionamendu egoera hobezinean egongo da.

10. Artikulua.

Alogerako autoak gutxienez hiruhilabetean behin desinfektatu egin beharko dira, bai eta alde aurreko osasun txostena emanik Alkategoak egoera bereziengatik agintzen duenean.

11. Artikulua.

Ibilgailu arinetako hiribarruko eta hiri arteko Garraio Zerbitzuetako Erregelainendu Nazionaleko 2. artikuluan aurrikusitako lizentzia mota desberdinetara atxikiriko ibilgailuek hiri arteko zerbitzuak egin ahal izango dituzte beti ere. Garraio eta - . Komunikabidetako Ministraritzaren beharrezko lizentzia badute:

Lehendabizi hiri barruko zerbitzu ondo betetzearen menpe utzi ahal izango ditu Udalak hiri arteko zerbitzuen burutzea, horretarako egoki erizten dituen kontrol eta txandaketa sistemak - jarri ahal izango ditu.

12. Artikulua.

Ibilgailu guztiek lizentzia eta geldiketa seinalizazioa izango dute eta hurrengo hauek ere eraman beharko dituzte, Araudi honetako ale bat, ibilgailuaren zirkulazio baimena, indarrean dagoen aseguroko poliza eta indarrean dagoen onaturik o prezio-tarifa; azken hau bidaiarik ikusteko

moduan jarria egongo delarik , nahi izanez gero ibilbidean zehar zerbitzuko zenbatekoa zuzenean kontsultatu ahal izateko.

Era berean eraman dezaketen gehienezko bidaiari-kopurua. adierazten duen plaka ere agerian eramango dute kotxeko matrikula azalduz.

13. Artikulua.

Ibilgailu guztiek erreklamazio, kexa edo salaketa liburua eraman beharko dute, bezeroei eskeintzeko eta Udalak zigilatu eta aztertuko du bi hilabetero Idazkaritzan aurkezten denean. Obligazio hau ez betetzea edo eskatu zuen bidaiariari erran nahi ez izana hoben larrizat joko da. Hoben hau errepikatzeak gidatzeko baimena kentzea ekarriko du.

14. Artikulua.

Ibilgailuek urtero, Industria Ministrariatzako Ordezkaritza Probintzialak egindako ikuskaketa pasatuko dute eta Ordezkaritza horrek emandako zertifikatu egokia agerian eramango dute.

15. Artikulua.

Udalak ezarritako epearen barruan ibilgailuak urtero aurkeztuko dira Udaletxean ikuskaketa egiteko, kontserbazio, itxura eta garbitasun egoera ona hala nola Araudi honetan galdatutako agiri, ziurtagiri eta txostenak eta taximetroaren egoera eta funtzionamendua egiaztatzeko xedez eta onespena emanez gero une horretan ordainduko da udal tasa.

Nolanahi ere Alkatetzak beste edozein momentutan agindu ahalko du ibilgailu batzuren nahiz guztien aparteko ikuskaketa egitea baina kasu horietan Udalak ezin izango du inolako tasa edo eskubiderik kobratu.

16. Artikulua.

Araudi honek galdaturiko erosotasun edo segurtasun baldintza teknikoak betetzen ez dituzten ibilgailuek ezingo dute berriro zerbitzurik eskeini, aipatu gabeziak ohartarazi zituen Erakunde edo Agintariak alde aurretik ikuskaketa berria egin gabe, bertan kreditatu beharko delarik ohartemandako akatsa zuzendu dela, xedapen honen kontra ihardutea hoben larrizat joko delarik.

17. Artikulua.

Arauketa honen menpe dauden ibilgailu automobilak luxu .zerbitzuez hornitu ahal izango dira, esaterako irrati aparailuak jarritz, baina ezingo dituzte ibilbidetan martxan jarri kotxea alogeran hartu zuen bidaiariaren borondatearen kontra.

18. Artikulua.

«Auto-taxi» guztiek behar bezala egiaztatu eta prezintaturiko taximetroa eramango dute karrozeriaren barrukaldeko aurrekaldean jarrita eta bidaiarik edozein momentutan tarifa nahiz prezioa irakurri ahal izateko moduan ipinita eta iluntzen duenetik egunasantiraino argiturik egongo da.

19. Artikulua.

Taximetroa banderatxoa edo horren ordezkoko elementu mekanikoa jeisterakoan jarriko da martxan. Lokagune posizioan jartzerakoan kontagailuak ez du aurrera segituko, dela behin betirako zerbitzua bukatzerakoan, dela behin behingoz istripua, matxura, erregaien hornidura edo erabiltzaileari egotzi ezinezko bestelako arazoirengatik, aipatu aparailuak, behin gorabehera konpondurik, martxan Segitu behar duelarik berriz ere banderatxoa jaitsi beharra izan gabe.

20. Artikulua

Zuzenean erasandako edozein pertsona, entitate nahiz elkartek salatu ahal izango du Udalaren aurrean, ibilgailu jakin baten taximetroa behar bezala funtzionatzen ez duelako susmo edo ustea eta Udalak horri buruzko espedienteari ekingo dio.

21. Artikulua.

Udal lizentzia duen Auto-taxi ibilgailuak egunero geltokietara joan beharko du bere mailako zerbitzuak eskaintzeko.

22. Artikulua.

Udal barrutiko lurraldeen barruan Auto-taxi libre daudela adierazteko egunez parabrisan adieraziko dute edo kolore zuriko errotuluarekin, 30 x 12 zm.takoa eta bertan 8 x 3,5 zentimetrotako hizkietan idatziko da Taxi libre eta azpian, euskaraz, Taxia libre.

23. Artikulua.

Gauetz argi berdea eramango dute pizturik, argi hori banderatzarekin edo taximetroa martxan jarri eta itzaltzeko hura ordezkatzeko duen elementu mekanikoarekin loturik egongo delarik, argia piztu eta itzaliz egoera desberdinen arabera. Argi horretako lanparak gutxienez 4 zentimetro izango ditu diametroan eta parabrisaren goiko eskuinaldean egongo da jarrita.

24. Artikulua.

Auto-taxi A klaseko ibilgailuei dagozkien lizentziatxo txartel kreditatzaileek kolore gorriko marraz zeharkaturik egongo dira eskuinetik ezkerretara.

2. SEKZIOA.- Lizentziak

25. Artikulua.

Araudi honetako xedea den zerbitzua eskaintzeko alde aurreko baldintza izango da beharrezko udal lizentzia lortzea, hori ematea Udalaren ahalmena izanik.

26. Artikulua.

Sortzen diren hutsak lehiaketa bidez beteko dira kontratazio lokaleko arauetara jarraiki. Interesatuak Udalean aurkeztu beharko dute eskaria behin lehiaketako iragarkia egin ondoren, deialdian galdatutako datuak konstatatuz.

27. Artikulua.

Pertsonalki zerbitzua betetzeko konpromezua hartu duten pertsonak bakarrik izan daitezke lizentzia hauetako tituludun.

Udalak soldatapeko pertsonala erabiltzeko bairnena eman ahal izango du, beti ere indarrean dagoen legeriaren arabera lan kontratua egiaztatzen bada eta kontzeptu horregatik Aseguro Sozialean inskribatu eta kotizazioa ordaintzen bada, guzti hori Araudi honek ezarritako duenarekin bat.

Lizentziaren ustiapena dedikazio oso eta eskusiboaren errejimenean egingo da bestelako lanbideekin bateraezina izanik.

28. Artikulua.

Lizentziak eskualdaezinak izango dira hurrengo kasuetan izan ezik:

Tituluduna hiltzerakoan, ezkontide alargunaren edo legezko oinordekoen alde.

Ezkontide alargunak edo legezko oinordekoek eta jubilatuek ezin dutenean lizentzia Araudi honetan ezarritako baldintzen arabera ustiatu eta Entitate Lokalak alde aurretik baimena

emanik, soldatapeko gidarien alde, nolahi ere Gidatzeko Baimen Lokala duen bestelako edozein beharrezko oinordekok eroslehentasuna izango duelarik.

Larrialdia dela eta jabeak ezin duenean, ezkontide eta seme-alaben alde eta aurreko atalean azaldutakoan alde Entitate Lokalak alde aurretik baimena emanik.

Lizentziak bost baino urte gehiagoko aintzinasuna duenean, gidatzeko karnetaren jabe den eta urtebetez lanbidean aritu den soldatapeko gidariari eskualdatu ahal izango dio, alde aurretik Entitate Lokalak baimena emanik eta hasierako tituludunak ezin izango du Ente Lokal berberetik lizentzia berririk eskuratu hamar urtetako epean, Araudi honetan ezarri inolako modalitatean.

Aurreko atalen kontra arituz egiten diren eskualdaketek Udalak lizentzia ezabatzea ekarriko ditu, ofizioz nahiz zentrale sindikalek, Lanbide Elkarrekin edo bestelako edozein interesatuk bultzatuaz egindako espedientearen tramitean jarri ondoren.

29. Artikulua.

Tituludunek udal lizentziak erakutsi beharko dituzte Agintariak eskatzen dituen guztietan eta gainean eraman beharko dituzte zerbitzuan ari direnean.

30. Artikulua.

Lizentzien eraginkortasunari dagokionean, baldintza izango da hirietara atxikiriko ibilgailuek Araudi honetan galdatuariko baldintzak betetzea.

31. Artikulua.

Hurrengo kausengatik galduko da udal lizentzien titulartasuna:

- Lizentziako titularrak espreski uko egiteagatik.
- Emakidako baldintza pertsonalak gaitzeagatik.
- Nahitaezko obligazioen bat ez betetzeagatik.

32. Artikulua.

Hurrengo kausengatik Udalak lizentzia kendu ahal izango du:

Urtebeteko epearen barruan hogeita hamar egun segituetan edo hirurogei tartekatuetan publikoari zerbitzua ez eskaintzea, Udalaren aurrean arrazoi zurrizkoak idatziz aurkezten direnean izan ezik.

Lizentziako tituludunak indarrean dagoen aseguru poliza kontzertaturik ez izatea.

Segurtasun, kontserbazio, desinfekzio eta agirien egoeraria buruzko aldizkako ikusketei buruzko xedapenak behin eta berriro ez betetzea.

Udal honek baimentzen ez duen ustiapena sortzen duen lizentzien errentaketa, alojera edo norberegantzea eta honetan baimendu gabeko lizentzia eskualdaketak.

Lizentziari eta ibilgailuaren jabetzari buruzko gainerako xedapenei dagozkien obligazioak ez betetzea.

f)- Udalaren baimenik gabe soldatapeko pertsonala kontratatzea.

g) Mota jakin batetako ibilgailua, baimenik ez duen bestelako motatarako erabiltzea.

33. Artikulua.

Edozein arrazoiengatik lizentzia ematean azaltzen zen ibilgailua baztertu dutenen lizentziak indarririk gabe geldituko dira eta gehienez ere hiru hilabetetako epea emango zaie, baja egin zenetik kontaturik, ibilgailua beste batekin ordezkatzeko; alde aurreko Udalaren baimenarekin.

34. Artikulua.

Behin lizentzia emanik tituludunak benetako zerbitzua eman beharra dauka lizentzia eman zitzaionetik kontaturiko hirurogei egun naturaletako epearen barruan, epe hori iraganik lizentzia indarrik gabe geldituz.

35. Artikulua.

Udalak emandako lizentzien Erregistro edo fitxategia izango du eta bertan notatuko dira tituludun edo horien ibilgailuei buruzko gorabehera desberdinak, hala nola, ordezkatzek, istripuak, zehapenak, etab.

Erregistro honetan hurrengo datuok agertuko dira:

a) Jabearen izen deiturak eta helbidea, helbideko telefono zenbakia, lizentzia zenbakia eta dagokion geltokia.

Kasua balitz, soldatapeko gidariaren izen deiturak eta helbideak, hala nola bere helbideko telefono zenbakia.

Kotxe bakoitzeko matrikula zenbakia, motorearen zenbakia, marka eta potentzia. Ibilgailuak dituen jearlekuen kopurua.

3. SEKZIOA.- Zerbitzuaren Antolaketa.

36. Artikulua.

Era berean erregistro egingo da Taxi zerbitzuaren gainean egiten diren erreklamazio oro jasotzeko.

37. Artikulua.

Geltokiak Korporazioak finkatuko ditu zerbitzuak dituen beharren arabera.

38. Artikulua.

Geltokira joateko ordutegia goizeko 8etatik gaueko 10ak bitartekoa izango da.

Taxisten artean gaueko zerbitzua emateko txandak ezarriko dira (gaueko hamarretatik goizeko zortzietara) algez aurretik Udaltzaingoari borren berri emango zaiolarik eta zerbitzuan ari direnek bakarrik bete ahalko dute zerbitzua, larrialdiak salbu.

Eguraldiaren gorabeherak direla eta kotxeak beharrik gabe ez zapuzteko eta taxistan beren atsedena ditan ez eragozteko, goardia zerbitzuak geltokietako iragarki taularekin ordezkari ditzake, non hilabeteka txanda osoak agertuko baitira, beti ere geltokian telefonoa badago eta taxista guztiak lokalizatu ahal izateko telefonoarekin agertzen badira zerrendan.

Txanden antolaketa lanbide horretako Ordezkaritari dagokion Udaltzaingoari horren berri emanez.

39. Artikulua.

Zerbitzuan duten aintzinasunaren arabera, alogerako zerbitzurako lizentzietako jabeek hoberen datorkien geltokia aukeratu dute eta horietako edozeinean hutsunea gertatzen denean, aintzinasun ordena beraren arabera beste ahal izango dira.

40. Artikulua.

Zerbitzua herritik kanpo emateko taxistaren bat 24 ordu baino denbora luzeagoz kanpoan egon behar badu, Udaltzaingoko Nagusiari adierazi beharko dio eta horrek beharrezko baimena eman beharko dio, taxista guztiek nahita nahiez izan behar duten Irteera-Liburuan adieraziz.

41. Artikulua.

Funtsa nahikoa duen edozein arrazoirengatik (gaixotasuna, istripua, matxura edo bestelako edozein larrialdi) taxistaren batek ezingo balu ezarririk duen geltokira egunen batetan joan, 24 ordutako epean zurituko du Udaltzaingoko Nagusigoari igorritako partearen bidez.

42. Artikulua.

Alogerako zerbitzu publikoko kotxeak ilaran jarriko dira geltokietan, heltzen diren ordenean. Zerbitzua eskatzen duten bidaiariak gelditze-ordena errespetatuz egin beharko dute 25 Km. baino gutxiagoko bidaiak direnean eta zerbitzua 25 baino Km. gehiagotara eskatzen denean geltokian dauden kotxeen artean aukeratu ahal izango dute beren kasa, jarririk daudeneko ordena kontutan hartu gabe.

43. Artikulua.

Alogerako zerbitzu publikoko kotxeak ikuskizunetako irten orduetan horiek eman direneko tokien inguruan jarri ahal izango dira beti ere zirkulazioa oztopatu gabe.

44. Artikulua.

Alogerako kotxeetako jabeek dagozkien geltokiak aldatu ahal izango dituzte beren artean, Udaltzain Nagusiari horren berri emanaz.

45. Artikulua.

Dagokien geltokian dauden bitartean auto guztiak libre eta datorren lehen eskatzailearen esku daudela ulertuko da.

Kaleetatik doazenean libre dauden autoek egoera hori adierazi beharko diote jendeari, toki ikusgarrian «libre» hitza ondo erakutsiz.

46. Artikulua.

Geltoki guztietan telefonoa jarri beharko da eta borren instalazio eta kontserbazio gastuak Lanbidekoen konturakoak izanik.

Geltoki bakoitzeko telefono zenbakia behar bezala iragarriko da bai prentsa lokalean, bai taxistek bestelako modutan, zerbitzu publikoa errazteko xedez eta batez ere telefono aurkibidean azalduko da hurrengo hitzekin: Taxis, parada de...

Aurrekoan esandakoarekin guztiz loturik debekaturik dago taxistek beren kontura, geltokiaren iragarkiarekin nahasmena sor lezaketen iragarkiak egitea telefono-aurkibidean, beraz, egin nahi dituzten iragarki guztiak aldeztu aurretik Udaletxean aurkeztuko dituzte ontzat emanak izan daitezela.

Auzo guztietan iragarki taula egongo da eta bertan taxietako guardia zerbitzuaren gorabehera guztiak azalduko dira egunero.

4. SEKZIOA.— Tarifak

47. Artikulua.

Araudi honetan araututako hiri barruko eta hiriarteko zerbitzuei aplikagarri zaien tarifa sistemaren ezarketa eta ondorengo aldaketari dela Udalaren dela lanbidekoen ekimenez ekingo zaio, justifikaziozko azterketa egin ondoren eta Udal Batzarre Osoak ezarri egingo du aldeztu aurretik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarriko sektoreko Enpresari eta Langileen Elkarte Profesionalak hamabost lanegunetako epean entzunik eta Kontsumitzailearen Udal Bulegoetan kontsulta egin ondoren.

Aplikazio kasu guztietarako tarifak ibilgailuaren barrukaldean egongo dira azalduz, euskaraz eta gazteleraz, eta erabiltzaileak errez ikusteko moduan jarriak.

BERGARAKO UDALA

Ibilgailu arinetako bidaiarien hiri barneko eta hiri arteko zerbitzuen udal Araudia

Horretarako, ateen barnekaldean eta aurreko jesarlekuetako baten goi atzekaldean, metalezko edo plastifikaturiko kartoizko tupa jarriko da tarifak grabaturik azalduz, Udalak emango duen formatoaren arabera.

Tarifa horiek ulerterrezak eta gehiegizko azalpen kasuistikorik gabekoak izango dira eta zenbait zerbitzurik aplikatu beharreko tarifa bereziak eta gehigarriak azalduko dira, esaterako kirol aldeetara, osasun zentroetara, aireportura, geltokietara nahiz hilerria joateagatikoak eta Gabon eta Eguberrietako jaietan erabiltzekoak. Zonetako gehigarriak ez da egongo, herritik urrunen dauden zonetako biztanleei gehiegizko tarifarik ez egozteko. Eskukoa ez den eta maletategian doan maleta bakoitzeko gehigarria egongo da.

48. Artikulua.

Ibilgailuetan animaliak onartzea aukerazkoa izango da eta kasu horietan tarifa gehigarria ezarriko da.

49. Artikulu.

Aipatu tarifak nahitaez bete beharko dituzte lizentziatutako tituludunek, ibilgailuetako gidariak bai eta erabiltzaileak.

50. Artikulua.

Zerbitzu bakoitza eman ondoren ibilgailuko gidariak zenbatekoaren ziurtagiria egin beharko du erabiltzaileak horrela eskatzen badu. Horretarako Udalak talotegi ofizialak emango dizkie lizentziatutako tituludunei eta bertan adierazi ahal izango dira lizentziaren tituluduna, egindako kobraturiko zenbatekoa eta data, gidariaren sinadurarekin.

51. Artikulua.

Tarifen berrikusketarako, aurreko artikuluan tarifen onespenerako ezarritako prozedura berbera erabiliko da.

52. Artikulua.

Tarifak arautzerakoan udalerritik kanpoko zerbitzuak kilometroko zenbatekoz konputatu ahal izango dira, taximetro bidezko tarifazioa salabuetsiz.

III. KAPITULUA

ZERBITZUARI ATXIKIRIKO PERTSONALA

1. SEKZIOA.- Baldintza orokorrak

53. Artikulua.

Alogerako zerbitzu publikoko ibilgailu guztiak, gidatzeko udal karneta duten pertsonak gidatu beharko dituzte. Baimen hau Alkatetzari eskaria eginez emango da jarraian azaltzen diren arauei jarraiki:

Eskarian eskatzailearen izena, deiturak eta helbidea agertuko dira.

Instantziarekin hurrengoak aurkeztuko dira:

Trafiko Nagusiko Probintzialak emandako ibilgailuak gidatzeko lehen mailako gidatze-baimena, zenbakia eta emate data adieraziz.

Lanbidean normal aritzea ekidin edo oztopatzen duen ezintasun fisikorik edo gaixotasun kutsakorrik ez izateko ziurtagiria.

Zirkulazio Kodeak edo Trafiko Nagusikoak galdaturiko bestelako edozein baldintza.

54. Artikulua.

Gidatzeko baimena Alkatetzak emango du aurkezturiko agiriak eta Barne Gobernamenturako Informazio Batzordearen txostena ikusi ondoren.

2. SEKZIOA.— Zerbitzua eskaintzeko modua

55. Artikulua.

Pertsonalki edo telefonoz zerbitzua ematea eskatzen dioten gidariak ezingo du errefusatu arrazoi zentzuzkorik eman gabe.

Hurrengo hauek izango dira, besteak beste, arrazoi zentzuzkoak:

Ibilgailurako baimen emandakoa baino bidaiari gehiago eramateko eskatzen denean.

Bidaiariren bat nabarmenki mozkorturik edo antzerako intoxikazioz baldin badago, Agintaritzako Ajenteak zerbitzua eskatzen diotenean izan ezik edo, bere bizitzarako edo osotasun fisikorako arrisku larria dagoenean.

Bidaiarien jantziek edo daramatzaten pakete, animalia edo trasteek ibilgailua zikindu, apurtu edo kalteak sor ditzaketenean.

Bidaiari eta gidariaren hala nola ibilgailuaren segurtasuna eta osotasuna arriskutan jar ditzaketeen bide iragangaitzetik joateko galdatzen diotenean.

Zerbitzua eskatzen duen pertsonak aurreko beste batzuk zorretan dituenean, beti ere alde zuzenetik Udaltzaigoari borren berri eman badio, eta ordainketa egin zezan zorduna errekeritu ondoren honek ez badu ordaindu.

Nolanahi ere gidariak jokamolde zintzoa izango dute jendearekiko eta erabiltzeak horrela eskaturik Agintaritzaren Ajenteren baten aurrean zerbitzua ez emateko arrazoiak a zaldu beharko dituzte.

56. Artikulua.

Lizentziaren tituludunak edo Baimen egokia emanik Entitate Lokalak baimenduriko pertsonak gidatu beharko dute beti ibilgailua.

57. Artikulua.

Gidariak abiadura moderatua eramango dute eta zerbitzu guztietan ibilbiderik laburrena egingo dute bidaiariak kontrakoa adierazten ez badu, une guztietan zirkulazio-seinaleei eta zirkulazio-ajenteek emandako agindua betez.

58. Artikulua.

Gidariak ezingo dute oztoporik jarri bidaiariak maletako eta bestelako ekipaia normalak eramanean ditzaten, beti ere ibilgailuaren maletategian sartzen badira, ibilgailuari kalterik sortzen ez badite eta horrela indarrean dagoen arau edo xedapenik hausten ez bada.

59. Artikulua.

Alogerako zerbitzu publikora destinatutako gidari guztiek Agintaritzaren Ajenteek eskatzen duten bezain batetan. Araudi honetako 9. artikuluan zerrendaturiko agirietaz gain Udalak emandako Baimena erakutsi beharko dute.

60. Artikulua.

Gidariak erabiltzaileei ez erretzeko gomendioa ematen dion, iragarkia eramanean ahal izango dute ibilgailu barruan, beti ere hiri barruko zerbitzuak bakarrik badira. Modu berean gidariak ez dute erre beharko erabiltzaileek horrela eskatzen badute.

61. Artikulua.

Gidariak hurrengo hauek egin beharko dituzte:

BERGARAKO UDALA

Ibilgailu arinetako bidaiarien hiri barneko eta hiri arteko zerbitzuen udal Araudia

Bidaiariak autoa utzi ondoren barrukaldea begiratu eta ahal dela momentuan bertan, ahazturiko gauzak eman bidaiariei. Bestela gauza horiek Udaltzaingoa utziko dituzte Alkatezaren esku 48 ordutako epearen barruan eta zerbitzua eman zeneko ordu zehatza adieraziko da hala nola- bidaia egin zuen pertsonaren gutxi gora beherako deskripzioa eta Udaltzaingoa bertan ziurtagiria eskatuko du utzitako gauzen truke.

Larritasun kasuetan izar, ezik zerbitzua eman.

Kalteak edo istripuak izan dituzten pertsonak garraiatu; garraioaren Ondorioz ibilgailuan kalterik sortuko balitz kalte edo istripua izandakoaren konturakoak izango dira.

Autoak dituen jearleku kopurua babo pertsona gehiago ez onartu.

62. Artikulua.

Gidariak debekaturik dute:

Tarifaren arabera egokia den ordainketa baino zenbateko handiagoa zeharka edo aitzakiz eskatzea.

Abiadura lehiaketak egitea.

Bide publikoan autoak oihuka e.skaintzea eta bidariaren bita ibili edo hirugarren pertsonen bidez egitea.

Kotxeak bide publikoan garbitzea.

Bidarien zain daudenean kotxetik kanpora joatea.

Kotxeak baimenik gabeko tokietan uztea, alkilaturik edo zerbitzutik kanpo daudenean izan ezik.

Bere aldameneko jearlekuan beste pertsonarik eramatea bidaiarien baimenik gabe.

63. Artikulua.

Geltoki bakoitzean lehen postua duten gidariak edozein eratako istripu larri edo katastroferik gertatuko balitz istripuaren tokira joan beharko du berehala eta hara heltzerakoan agintarien aurrera azaldu beren zerbitzuak erabili beharko liratekeen kasurako.

64. Artikulua.

Debekaturik dago izaera orokorrez, gaixotasun kutsakorrek dituztenei alokatzea, gaixotasunok larriak izan ala ez, beti ere gidariak hori baduela dakienean.

Zerbitzu publikoko ibilgailu batetako gidariak oso arrazoi bereziengatik gaixotasun kutsakorrek jotako pertsonarik garraiatu izan balu, Alkatetzari adierazi behar dio nahi eta nahi ez zerbitzua eman eta berehala eta Alkatetzak ibilgailuaren berehalako desinfekzioa aginduko du, horrekin bukatu bitartean ezingo delarik erabili. Sortzen diren gastuak zerbitzua eskatu duen pertsonaren konturakoak izango

65. Artikulua.

Bidaiariak behin behinekoz alkilaturik ibilgailua uzten badute eta gidariak beren itzuleraren zain egon behar badute, berme gisa, egindako ibilbidearen zenbatekoa gehi orduerdiko itxoinaldia hiribarruan, eta ordubeteko toki hutsetan, eskatu ahal izango dute eta denbora hori iraganez gero zerbitzuarekiko loturarik gabe geldituko dira.

66. Artikulua.

Gidariak iraunaldi mugatuko aparkalekuetan egon behar. badu bidaiarien zain, egindako zerbitzuaren zenbatekoa eskatu ahal izango die, zerbitzua eskaintzeko segitzeko obligaziorik izan gabe.

67. Artikulua.

Zerbitzuarekin segitzea ezinezkoa egingo lukeen istripu edo matxura kasuetan, bidaiarik matxura edo istripuaren momenturarteko zerbitzuaren zenbatekoa ordaindu beharko du eta hori egiaztatuko duen Agintaritzaren Ajenteak parte har dezan eskatu ahal izango du.

68. Artikulua.

Istripu kasuetan, istripua sortu duen gidaria berehala geratu egingo da, zauritutakoari laguntza eman eta bere kotxea era- bili laguntza emango zaion tokira eramateko.

3. SEKZIOA.— Diziplina Errejimena

69. Artikulua.

Araudi bonen kontrako arauhaustek hogen arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

70. Artikulua.

Hurrengo hauek hogen arinen kalifikazioa izango dute:

Norberaren garbitasun eza.

Ibilgailuaren kanpo nahiz barrukaldeko garbitasun eza.

71. Artikulua.

Hurrengo hauek izango dira hogen larriak:

Bi hilabeteko epean lau hogen arin edo urtebetean hamar egitea.

Zurituriko arrazoirik gabe astebetetz geltokira ez agertzea.

Zerbitzuak ematerakoan ibilbide luzeagoak egitea borretarako beharrik gabe:

Hitz edo keinu zakarrak nahi7 mehatxuak erabiltzea jendearekiko tratuan edo oinezko nahi7

beste ibilgailuetako gidariekikoan.

Ibilgailua zerbitzuan jartzea funtzionamendu egoera onean egon gabe.

Bidaiariak Bergarako Udal barrutikoak ez diren tokietan hartzea.

Taximetroa ikuskaturik ez izatea eta elementu osagarri guztiak egoera hobezinean ez izatea.

Zerbitzua gauzez ez ematea horrela dagokionean.

Erreklamazio liburua ez aurkeztea bidaiariek horrela eskatzen diotenean..

Ibilgailuaren ikuskaketarako eta Udalak galdaturiko agiriak aurkezteko ezarri epeak ez betetzea.

72. Artikulua.

Hurrengo hauek izango dira hogen oso larriak:

Eskaturiko zerbitzua burutu gabe bidaiaria lagatzea;- arrazoi justifikaturik ez balego.

Bi hilabetetako epean lau hogen larri edo urtebetean hamar egitea.

Ibilgailua mozkorturik gidatzea.

Ibilgailuan utzitako edozein gauza gordetzea Agintaritza eskudunei hurrengo 24 orduetako

epearen barruan horren berririk erran gabe.

Zirkulazio Kodeak oso larritzat jotzen dituen arauhaustek, hala nola kalifikazio hori ez duten

Kode horretako arauak behin eta berriro ez betetzea eta alor honetan Alkatetzak emandako

aginduak nabarmenki ez betetzea.

Erabiltzaileei gehiegi kobratzea edo baimen emandakoak baino txikiagoak diren tarifak erabiltzea.

Araudi honek aipatzen duen lanbidearen ihardueran edo hori dela eta Kode Penalak maltzurkeriz egindakotzat jotzen dituen delituak burutzea.

Taximetroak fortzatua edo kolpatua izan delako aztarnak izanik zerbitzua ematea.

BERGARAKO UDALA

Ibilgailu arinetako bidaiarien hiri barneko eta hiri arteko zerbitzuen udal Araudia

73. Artikulua.

Hurrengo zehapenak ezartzen dira:

a) Hogen arinetarako:

- Zentzarazpena.
- Gidariaren baimen edo lizentzia lokala gehienez ere hamabost egunez kentzea. pezetarainoko isunak.

b) Hogen larrietarako:

- Gidariaren baimen edo lizentzia lokala hirutik sei hilabetez kentzea.
- 5.000 pezetarainoko isunak.

c) Hogen oso larrietarako:

- Gidariaren baimen edo lizentzia gehienez urtebetez kentzea.
- Gidariaren udal baimen edo lizentzia behin betirako kentzea.
- 10.000 pezetarainoko isunak.

Nolanahi ere aurreko artikuluko C, E, eta G ataletan definituriko arauhausteak gidatzeko udal baimena behin betirako kenduz zehatuko dira gidaria lizentziaren tituluduna balitz.

74 .Artikulua

Hogenak eta zehapenak, aipamen hutsak dira, eta Udalak arauz zabaldu ahal izango ditu egokien erizten duen moduan.

75. Artikulua.

Gidatzeko udal baimena edo lizentzia behin betirako kentzearen zehapena izan ezik, hau Udalak ezarriko baitu, gainerakoak Alkatetzak ezarriko ditu, kasu guztietan interesatuarentzako audientziaren tramitea beteaz.

76. Artikulua.

Aurreko artikuluetan, ezarritakoaren kaltetan gabe, egokia balitz erantzunkizun zibil eta penala eskatu ahal izango zaizkie ibilgailuetako jabeei Araudi honen aurakako arauhausteengatik.

ORDEZKO XEDAPENA

Araudi honetan aurrikusten ez denerako martxoáren 16ko 63/1979 Dekretu bidez onarturiko AutOmobil Arinetako Hiri barruko eta Hiriarteko Garraio Zerbitzuetako Erregelamendu NaziOnalean ezarritakoa izango .da egozgarri, hala nola aplikagarri zaion neurrian Zirkulazio Kodean agertutakoa eta Konpetentzien Koordinazioari buruzko urriaren 17ko 2.025/1984 E.D.an azaldutakoa.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lizentzia kopurua Lurralde Politika eta Garraioetako Departamentuko 198.5eko uztailaren 22ko Aginduaren I. artikulua ezartzen duen gehienezko kopurura egokitzeko xedez, Araudi honetako 28. artikulua bidemandako eskualdaketak bakarrik onartuko dira, bitartean lizentzia berririk emango ez delarik.